



ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Oñatiko Udalak salerosketa bidez landa lurak erosteko oinarrietan zuzenketak. (1026 zkidun Espteak)

2022ko otsailaren 24ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiz landa lurak erosteko espediente bat abian jarri zen, 2022ko otsailaren 28ko Kontratazio atarian eta martxoaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitara eman zelarik.

Oinarrietan jasotako zenbait kontraesan zuzendu edo argitu beharra ikusi dudanez espediente honetako kontratazio organoa naizen aldetik (SPKLren 2. xedapen gehigarriko 9. Atalaren arabera) honako zuzenketa eta azalpenak egitea erabaki dut:

.- Oinarrietak jasotzen direnak:

“1.1.- PROZEDURA, LIZITAZIO-MOTA ETA NAHITAEZ BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Ondasunak eskuratzeko espediente honen ondoriozko tributazioari dagokionez, lizitatzaille-esleipendunaren kontura izango da Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Udal Zerga ordaintzea, eta Udalak, berriz, eskualdaketa formalizatzeko behar diren gastuak ordaindu beharko ditu (notarioria, Jabetza Erregistroa, etab.).

1.5 LIZITAZIORAKO GEHIENEZKO PREZIOA

Notarioria eta Erregistroko gastuak legearen arabekoak izango dira.

2.3.- SALEROSKETAREN FORMALIZAZIOA

Eskritura publikoa egilesteak sor ditzakeen gastu eta zerga guztiak alderdiek ordainduko dituzte, legearen arabera. Adierazitako baldintzetan eskuratzeko lortzeko sor daitezkeen gorabeheretatik, kontratazio-organok ematen du ahalmena.

3.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

* Eskualdaketatik eratorritako gastu eta zerga guztiak alderdiek ordainduko dituzte, legearen arabera.

3.1.- ORDAINKETA

Udalak bere gain hartuko ditu kontratua notario-agiri publiko bihurtzearen ondoriozko gastuak, bai eta Jabetza Erregistroan inskribatzearen ondoriozkoak ere, hala salerosketa-kontratua nola, hala badagokio, etorkizunean egikaritze-klausula gauzatzearen ondoriozkoak.

3.2.- ESLEIPENDUNARI ESKA DAKIZKIOKEEN GASTUAK

Esleipendunak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ordaindu beharko du.”

Ondorioz, eta Kontratazio Organoa naizen aldetik honako zuzenketak egitea **ERABAKI DUT:**

1.- Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Udal Zerga ezin zaio aplikatu landalurrei, ondorioz udal zerga hori ez da aplikagarria kasu honetan.

2.- Euskaldaketatik datozen gastuei dagokienean, bi gastu daude notaritza zein erregistrokoak, Kode zibileko 1455 artikularen arabera, notaritzako gastuak saltzailearen kontura dira eta erregistrokoak eroslearen kontura, kasu honetan oinarrietan kontraesanak daudenez aplikatuko da interpretazio onuragarriena herritarrentzako eta horren arabera salerosketaren ondorizko notaritza zein erregistroko gastuak udalaren kontura izango dira.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2022eko martxoaren 28an

Alkateak

Izaro Etorza Arregui